

**2020ko maiatzaren 23an, Biarritzeko Atabal**

Egunaren arduradunak : François Maton, Olivier Mathios, Luc Robène eta Solveig Serre.

Euskal Kultur Erakundearekin eta Atabalekin elkarlanean antolatutako hogeita hamahirugarren ikerketa-jardunaldi hau CNRS, ANR eta LNEI erakundeek sostengatzen duten PIND ikerketa-proiektuan sartzen da (*Punk is not dead. Une histoire de la scène punk en France, 1976-2016*).

1976tik, punka erabateko fenomenoa izan zen Frantzian. Garai hartan, osatu berri eta jadanik auzoan, hirian edo eskualdean « ospetsuak » ziren taldeak agertokira igotzen hasi ziren. Fenomenoa ez zen Parisera mugatzen, nahiz eta hiriburua guzti horren grabitate zentroa izan. Parisek erakartzen zuen ala mesfidantza eragiten zuen.

Eta Euskal Herria ez zen fenomeno horretatik libratu. Are hobeki, punkaren iturburu anitza izan zen; mugaren bi aldeetan. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, euskaldun belaunaldi oso batek punka bizi izan zuen. Hauek izan ziren talde aitzindariak: Kortatu, La Polla Records, Vómito Social, RIP, eta gerora Negu Gorriak. Publikoa letra inkonformista eta militanteen inguruan federatu zuten eta musika indartsua sortu zuten, « Euskal Rock Erradikala » moduan izendatua. Gaztetxeak gune okupatuak eta autogestionatuak ziren, eta borroka antifrankista, independentista eta feministetan oinarritzen ziren. Adierazpen eta kultura leku nabarmenak ziren, bereziki Euskal Herriko punk mugimenduarentzat. Leku hauek erakusten duten bezala, ertzetatik ekiteko eta eragiteko modu bat izan zen punka.

Hau izanen da ikerketa-jardunaldi honen xede nagusia: Euskal Herrian punka nola sustraiturik dagoen aztertzea. Batetik, honen originaltasuna ikertuko dugu, geografikoa eta kulturala. Bestetik, erdigunearen eta periferien arteko – edo eskualdeen arteko – eraginak eta tentsioak ikertuko ditugu. Mugaren bi aldeetako punk mugimenduak aztertuko eta argira emanen ditugu (musikariak, sortzaileak, artistak, irratiak, diskoetxeak, disko saltzaileak, kontzertu antolatzaileak eta abar). Euskal punkaren berezitasuna eta nortasuna galdekatuko dugu ere, eta herrietan eta hirietan nola errotuta dagoen ikusiko dugu. Punkaren tokian tokiko egokitzea ulertzeko kultura-trukatzeen inguruko ikerketak bultzatuko ditugu. Azkenik, hirien arteko (Bilbo, Donostia, Baiona, Hendaia...) eta musikarien eta eragileen sareen arteko lehiak eta trukeak bezalako gai batzuk xeheago lantzen ahalko ditugu.

Ekarpen proposamenak (izenburu bat eta 20 lerroko laburpena) **2020ko apirilaren 25a aitzin** igortzekoak dira helbide horietara :

[solveig.serre@gmail.com](mailto:solveig.serre@gmail.com)

[luc.robene@u-bordeaux.fr](mailto:luc.robene@u-bordeaux.fr)

## Parte hartze deialdia Punka Euskal Herrian (1976-2016)

